Módulos interactivos; experimentos dinámicos; exposiciones con las que se ha acercado la ciencia a los más jóvenes; el túnel del viento; conferencias de premios Nobel o simuladores que han hecho las delicias de miles y miles de niños, son parte de la historia de este museo de la ciencia, y parte también, de la historia más reciente de San Sebastián,

La Fundación Kutxa ha decidido poner fin a dos décadas de divulgación científica en nuestra ciudad. Su Plan Estratégico 2030, votado a favor por todos los partidos con representación en el Patronato de la Fundación Kutxaespacio, así lo recogía. Los mismos partidos, que horas después se rasgaban las vestiduras, con el cierre, son los que facilitaron con su voto el cierre de uno de los museos más queridos de la ciudad.

El cierre de las actuales instalaciones de Miramón y su anunciado traslado a Tabakalera mermará las dimensiones de este museo en 2.000 metros cuadrados. Además, nada se ha sabido sobre qué va a pasar con el planetario.

Por estos motivos presentamos la siguiente

MOCIÓN ORDINARIA

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Gipuzkoako Foru Aldundiari Eureka! Zientzia Museoak oraingo lekuan segitzeko bidea emateko eta lehen baino ere gehiago ahalegintzeko zientzia donostiar gazteen artean zabaltzen.

2. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari Eureka! Zientzia Museoak oraingo lekuan segitzeko bidea emateko eta lehen baino ere gehiago ahalegintzeko zientzia donostiar gazteen artean zabaltzen.

3. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen die Kutxa Fundazioaren Patronatuan ordezkaritza duten alderdi politikoei jendaurrean adierazteko akatsa egin dutela gai honetan eta hitz emateko ahal duten guztia egingo dutela Eureka! Zientzia Museoak ordain den lekuan segitzeko.

Donostian, 2021eko azaroaren 5ean.

Borja Corominas Fisas,
Udaleko Talde Popularraren bozeramailea".

1. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta a la Diputación Foral de Gipuzkoa a que facilite la permanencia del Eureka! Zientzia Museoa en su localización actual y que redoble sus esfuerzos para divulgar la ciencia entre los jóvenes donostiarras.

2. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Vasco a que facilite la permanencia de Eureka! Zientzia Museoa en su localización actual y que redoble sus esfuerzos para divulgar la ciencia entre los jóvenes donostiarras

3. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta a los Partidos Políticos con representación en el Patronato de la Fundación Kutxa a que manifiesten públicamente su error y se comprometan a hacer todo lo posible para que Eureka! Zientzia Museoa permanezca en su ubicación actual.

En San Sebastián, a 5 de noviembre de 2021

Borja Corominas Fisas
Portavoz del Grupo Municipal Popular".

Eztabaida hasita, Borja Corominas Fisas jaunak, Duñike Agirrezabalaga Ugarte andreak, Reyes Carrere Zabala andreak, Alkate-Udalburuak eta Aitzole Araneta Zinkunegi andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D. Borja Corominas Fisas, D.ª Duñike Agirrezabalaga Ugarte, D.ª Reyes Carrere Zabala, Alcalde-Presidente y D.ª Aitzole Araneta Zinkunegi, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**ELKARREKIN DONOSTIA TALDEAK 8. GAIARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA AL ASUNTO N.º 8 PRESENTADA POR EL GRUPO ELKARREKIN DONOSTIA.**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**

**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 9 – (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 18 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 9 – (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 18 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**8. KONTROL MOZIOAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 8:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**8. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 8:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**8. KONTROL MOZIOAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 3 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 8:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 3 – PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 21- (10) EAJ/PNV, (6) EH BILDU, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 3 – ELKARREKIN DONOSTIA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 3 – PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 21- (10) EAJ/PNV, (6) EH BILDU, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 3 – ELKARREKIN DONOSTIA.**

---------------

**9.- Mozio arrunta, EH BILDU taldeak aurkeztua, Lurraldebuseko BU05 linearen eta Euskotreneko Errekalde geltokiaren arteko intermodalitatea dela eta.**

**9.- Moción ordinaria, presentada por el Grupo EH BILDU, con motivo de la intermodalidad entre la línea BU05 de Lurraldebus y la estación de Errekalde de Eusko Tren.**

“EH BILDU udal taldeko bozeramaile Reyes Carrere Zabalak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, honako MOZIO ARRUNT hau aurkezten du, Lurraldebuseko BU05 linea eta Euskotreneko Errekalde geltokiaren arteko intermodalitatea dela eta.

“La portavoz del grupo municipal EH Bildu, Reyes Carrere Zabala, en base al artículo 98 del Reglamento del Órgano del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN ORDINARIA, en relación con la intermodalidad entre la línea BU05 de Lurraldebus y la estación de Errekalde de Euskotren.

JUSTIFIKAZIOA

Egun, Buruntzaldeko BU05 linearen ibilbidea EuskoTrenek Errekalde auzoan duen geltokitik oso gertu pasatzen da. Hala ere, linea honek ez du geralekurik bertan, eta hortaz ez du intermodalitatea sustatzen.

Aurtengo uztailaren 1a arte, Euskotrenetik gertuen zegoen Lurraldebuseko geltokia, Buruntzaldeko G2 linearena (egun BU05), GI-2132 errepidean Errekalde hiribideko 21. zenbakiaren inguruan zegoen. Esan beharra dago geltoki honek segurtasun aldetik gabezia asko zituela.

JUSTIFICACIÓN

Actualmente, el trazado de la línea BU05 Buruntzaldea discurre muy cerca de la estación de EuskoTren del barrio de Errekalde. Sin embargo, esta línea no tiene paradas en dicha estación, por lo que no se fomenta la intermodalidad.

Hasta el 1 de julio del presente año, la parada de Lurraldebus más cercana a Euskotren, la de la línea G2 de Buruntzaldea (actualmente BU05), se encontraba en la carretera GI-2132, en la zona de la avenida de Errekalde nº 21. Hay que decir que esta parada presentaba muchas deficiencias en cuanto a seguridad.

Uztailaren 1etik aurrera, emakida berria indarrean sartzearekin batera, Errekalde hiribideko 21. zenbakiko geltokia kendu eta urrundu egin dituzte Lurraldebuseko Buruntzaldeko BU05 (aurreko G2 linea) eta Euskotreneko geltokitik gertuen dauden autobus geltokiak, intermodalitatea sustatzeko aukerak baztertuz.

A partir del 1 de julio, con la entrada en vigor de la nueva concesión, se ha procedido a la supresión de la parada del nº 21 y se ha alejado la línea BU05 Buruntzaldea de Lurraldebus (anteriormente, línea G2), así como las paradas de autobuses más cercanas a la estación de Euskotren, haciendo imposible la intermodalidad.

Badirudi aukera hobea izan dela aipatutako geltokia kentzea, egokitzea eta txukuntzea baino. Hortaz, orain erabiltzaileek gertuen topatuko duten geltokia GI-2132 errepidean dagoen gasolindegian dago, Euskotreneko Errekaldeko geltokitik 750 metrora. Kontuan hartu behar da, hemendik aurrera, 10 minutuko ibilbidea egin beharko dela oinez trafiko handiko errepide batean.

Parece que se ha optado por eliminar dicha parada, en lugar de acondicionarla y adecuarla. Por lo tanto, ahora, la parada más cercana se encuentra en la gasolinera de la carretera GI-2132, a 750 metros de la estación de Euskotren de Errekalde. Así, en adelante, habrá que hacer a pie un recorrido de 10 minutos, en una carretera de mucho tráfico.

Mozio honen helburua Lurraldebuseko Buruntzaldeko BU05 linearen eta EuskoTreneko Errekaldeko geltokien arteko intermodalitatea baldintza duin eta seguruan burutzea sustatzea da.

El objeto de la presente moción es promover el establecimiento, en condiciones dignas y seguras, de la intermodalidad entre la parada de la línea BU05 Buruntzaldea de Lurraldebus y la estación de Errekalde de EuskoTren.

Horiek horrela, EH BILDU udal taldeak honako mozio arrunt hau aurkezten du:

Por todo ello, el grupo municipal EH Bildu presenta la siguiente

MOZIOA ARRUNTA

MOCIÓN ORDINARIA

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Gipuzkoako Foru Aldundiari, Donostiako Udalarekin batera, Errekalde auzoko EuskoTreneko geltokiaren eta Lurraldebuseko Buruntzaldeko BU05 linearen arteko kalitatezko intemodalitatea bermatzeko, aproposa eta segurua den geltokia sortu dezala.

1.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta a la Diputación Foral de Gipuzkoa a la creación, junto con el Ayuntamiento de San Sebastián, de una parada adecuada y segura para garantizar una intermodalidad de calidad entre la estación de EuskoTren del barrio de Errekalde y la línea B05 Buruntzaldea de Lurraldebus.

Donostian, 2021eko azaroaren 5ean

San Sebastián, 5 de noviembre de 2021

Reyes Carrere Zabala
EH Bildu udal taldearen bozeramalea".

Reyes Carrere Zabala,
portavoz del grupo municipal EH Bildu ".

Eztabaida hasita, Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego andreak, Aitzole Araneta Zinkunegi andreak, Mikel Lezama Zubeldia jaunak, Marisol Garmendia Beloqui andreak eta Pilar Arana Perez andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as D.ª Garbiñe Alkiza López de Samaniego, D.ª Aitzole Araneta Zinkunegi, D. Mikel Lezama Zubeldia, D.ª Marisol Garmendia Beloqui y D.ª Pilar Arana Pérez, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2**

**KONTROL MOZIOAK**

**II.2.1. Kontrol mozioa, PP taldeak aurkeztua, hiriko eraikin eta dendetan grafitiak eta pintadak kentzeari buruz**

“Jorge Mota Iglesias Talde Popularreko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL-MOZIO hau aurkezten du, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) aurkeztutako interpelazioaren ondorioz, hiriko eraikin eta dendetan egindako grafitiak eta pintadak garbitzea dela-eta."

JUSTIFIKAZIOA

Pintadak eta grafitiak gainezka daude Donostiako kaleetan. Saltokietako pertsianak,

**II.2**

**MOCIONES DE CONTROL**

**II.2.1. Moción de control, presentada por el Grupo PP, sobre la retirada de los grafitis y pintadas en los edificios y comercios de la ciudad.**

“Jorge Mota Iglesias, Concejal del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, como consecuencia de la interpelación presentada en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbano, sobre la retirada de los grafitis y pintadas en los edificios y comercios de la ciudad.

JUSTIFICACIÓN

Las pintadas y los grafitis inundan las calles de San Sebastián. Persianas de comercios,

eraikinetako fatxadak, parkeak, eserlekuak, ez dago izurri horretatik libre dagoen ezer.

Arazo larria dugu; ez gara horma-irudi artistikoez ari hemen. Ohitura bandaliko batez ari gara, taggingaz, hain zuzen: pintadak, sinadurak eta zirriborroak, fatxadak, dendetako pertsianak, hiri-altzariak, trenak, furgonetak eta edozein azalera bertikal zikintzen dituztenak .

Jokaera horrek urratu egiten du herritarrek beren etxeetako fatxadak eta negozioak nahi duten moduan edukitzeko duten eskubidea, ezarritako arauak betez, betiere.

Zibismoari, bide publikoa erabili eta txukun edukitzeari zein hiriko paisaia babesteari buruzko udal ordenantzaren 3. artikuluak honako hau dio: “Udalak elementu pribatu horien guztien garbitasun egoera kontrolatuko eta ikuskatuko du, eta arduradunei haiek garbitzeko eskatuko die, hartarako udal zerbitzuek emandako jarraibideen arabera”.

Eta 4. artikuluak honako hau dio: “Merkataritza-lokalen jabeek fatxadak egokitu beharko dituzte eraikinaren apaindura, zainketa eta ezaugarrien arabera, eraikuntzako ordenantzak gai horretaz xedatutakoen arabera.”.

Hau da, Udalak jabeak behartzen ditu beren poltsikotik ordaintzera beren fatxadak, dendetako pertsianak, jabetza pribatu eta komunak eta edozein azalera bertikal pribatu garbi mantentzeko gastuak, eta, hala egiten ez badute, zehapenak jartzen dizkie.

Hala, bandalismoa ez ezik, horren ondorio ekonomikoak ere pairatzen dituzte. Baina jabeak nekatu egin dira beren jabetzak garbi

fachadas de edificios, parques, bancos, no hay nada que se libre de esta plaga.

Tenemos un serio problema, no hablamos aquí de murales artísticos. Hablamos de una costumbre vandálica, la del tagging, las pintadas, firmas y garabatos que emborronan y ensucian fachadas, persianas de comercios, mobiliario urbano, trenes, furgonetas, y cualquier superficie vertical.

Con este problema se está quebrantando el derecho de los ciudadanos a tener las fachadas de sus casas y de sus negocios como consideren adecuado, dentro de las normas establecidas.

La ordenanza municipal sobre el civismo, el uso y la limpieza en la vía publica y la protección del paisaje urbanos, en su artículo nº3, recoge lo siguiente: “El ayuntamiento ejercerá el control e inspección del estado de limpieza de todos estos elementos privados, y requerirá a los responsables para su limpieza, de acuerdo con las instrucciones que al efecto dicten los servicios municipales”.

Y en su artículo nº4, dice: “Los propietarios de locales comerciales adecuarán sus fachadas en cuanto a ornato, mantenimiento y características de edificación de acuerdo con las especificaciones que a tal fin establezca la Ordenanza de edificación”.

Es decir, el Ayuntamiento obliga a los propietarios a pagar de su dinero para mantener limpias sus fachadas, las persianas de los comercios, sus propiedades privadas y comunes y cualquier superficie vertical privada bajo sanción en caso de no hacerlo.

No sólo sufren el vandalismo, si no también las consecuencias económicas del mismo. Pero los propietarios se han cansado de pagar para

izateko ordaintzeaz, berriz pintatu beharko dituztela dakite-eta.

Beste batzuetan, bandalismoaren aurkako neurri zuzentzaileak hartzea proposatu dugu, hala nola arau-hausleek ordaindu beharreko zehapenak ezartzea, edo, ordaindu ezin badituzte, garbiketa-lanak eta komunitatearen onurarako beharrak egitea. Gure ustez, ez litzateke oso zaila izango arau-hausleak aurkitzea; izan ere, pintatu ohi dutena beren sinadura izaten da. Eta, bestetik, alkateak jarraibideak eman beharko lizkioke Udaltzaingoari, bere lanerako.

Gure ustez, komeni liteke brigada iraunkor bat sortzea fatxadak, lokalak, garajeetako ateak, hiri-altzariak eta edozein gainazal bertikal zikintzen dituzten pintadak, sinadurak eta zirriborroak garbitzeko, toki horiek pribatuak izan ala ez izan, erasandakoengan eragin ekonomikorik izan gabe. Erasandako komunitate edo merkatariak dei bat egiten duenean pintada edo grafitiak kentzeko eskatzeko, Udalak hiria garbi mantentzearen alde jardun beharko luke, udal eraikinekin egiten duen bezala.

Horiek horrela, kontrol-mozio hau aurkezten dugu:

KONTROL-MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Gobernu Taldeari grafitiak eta pintadak garbitzeko brigada iraunkor bat sortzeko, eraikin publikoetan zein jabetza pribatuan jardun dezan.

Donostia, 2021eko azaroaren 23a

Jorge Mota Iglesias,
PP udal taldeko zinegotzia”.

que limpien sus propiedades, cuando van a volver a pintarlas.

En otras ocasiones ya hemos propuesto tomar medidas correctoras contra el vandalismo, aplicar sanciones que puedan pagar los infractores, o en caso de no poder, trabajos de limpieza y tareas en beneficio de la comunidad. Creemos que no sería muy difícil localizar a los infractores, ya que lo que suelen pintar es su propia firma y que el alcalde debería dar instrucciones a la Policía Municipal para actuar.

Consideramos conveniente crear una Brigada permanente para la limpieza de todas las pintadas, firmas y garabatos que emborronan las fachadas, locales, puertas de garajes, mobiliario urbano y cualquier superficie vertical, sean o no privadas, sin que tenga repercusión económica en los afectados. Tras una llamada de la comunidad o comerciante afectado solicitando la retirada de dichas pintadas o grafitis, el Ayuntamiento debería actuar para mantener la ciudad limpia, igual que hace con los edificios municipales.

Por estos motivos presentamos la siguiente

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Equipo de Gobierno a crear un brigada permanente de limpieza de grafitis y pintadas destinada a actuar tanto en los edificios públicos como en la propiedad privada.

En San Sebastián, a 23 de noviembre de 2021

Jorge Mota Iglesias
Concejal del Grupo Municipal Popular”.

Eztabaida hasita, Jorge Mota Iglesias jaunak, Marisol Garmendia Beloqui andreak, Jon Markel Ormazabal Gaztañaga jaunak eta Haizea Garay Gallastegui andreak parte hartu dute puntu honetan. Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D. Jorge Mota Iglesias, D.ª Marisol Garmendia Beloqui, D. Jon Markel Ormazabal Gaztañaga y D.ª Haizea Garay Gallastegui, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 3 – PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 17 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**ABSTENTZIOAK: 7 – (5) EH BILDU. 1 EH BILDU ETA 1 EAJ/PNV PLENO ARETOAN EZ EGOTEAGATIK.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 3 – PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 17 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**ABSTENCIONES: 7 – (5) EH BILDU. 1 EH BILDU Y 1 EAJ/PNV POR HABERSE AUSENTADO DE LA SALA.**

---------------

**II.2.2. Kontrol mozioa, PP Taldeak aurkeztua, Amara auzoko enpresa-suspertzeko planari buruzkoa.**

“Talde Popularreko zinegotzi Mikel Lezama Zubeldiak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, Amara auzoko enpresak suspertzeko planari buruz Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Amara da hiriko auzorik jendetsuena, hiriko biztanleriaren % 16rekin, eta Amarako saltoki txikiak hiriko merkataritzaren % 12 dira.

**II.2.2. Moción de control presentada por el Grupo PP, sobre el plan de estímulo empresarial del barrio de Amara.**

“Mikel Lezama Zubeldia, Concejal del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, como consecuencia de la interpelación presentada en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbano, sobre el plan de estímulo empresarial del barrio de Amara.

JUSTIFICACIÓN

El pequeño comercio de Amara, el barrio más poblado de la ciudad, con un 16% de la población total, representa el 12% del comercio de la ciudad.

2015ean, Paisaje Trasversal enpresak, Sustapen Bulegoak eskatuta, ikerketa bat egin zuen Amara auzoko merkataritza-establezimenduak ixtearen zergatian sakontzeko eta enpresak sustatzeko plan bat egiteko, eremua biziberritze aldera.

Azterketa hori oinarritzat hartuta, auzoaren analisi bat egin zen: Amaraberrik 30.000 biztanle baino gehiago ditu, eta hirian biztanle gehien duen auzoa da. 1950eko hamarkadan sortu zen auzoa, hiriko zabalgune gisa, baina azken hamarkadetan hainbat hirigune garatu dira —Mutualitateen zona, Amara Osinaga eta, berrikiago, Loiolako Erribera—, eta horiek lehendik zeuden eremuei —Antso Jakitunaren hiribideko zonari eta Madril hiribidearen eta Carlos I.aren hiribidearen artean dagoen bilbadurari— gehitu zaizkie. Duen fisonomiaren ondorioz, errepideek eta trenbideek zeharkatzen dutenez eta bizilagunak biltzeko plaza nagusirik ez duenez, auzoak ez du izan bertan bizi diren biztanleen araberako merkataritza-hazkundea.

Amaraberrik 348 merkataritza-establezimendu ditu guztira. Biztanle aldetik lehena bada ere, hiriko hirugarrena da merkataritza-ezarpenean. Amaratarrak askotan joaten dira auzoko elikagai-dendetara, baina, arropa eta oinetakoak erosteko, erdialdera joaten dira. Bizilagunek egiaztatu dute Pio XII.aren plazako biribilguneak bereizi egiten duela auzoa, Carlos I.aren hiribideak duela urte batzuk arte egiten zuen bezalaxe.

Sei urte geroago, egoera ez bakarrik ez da leheneratu, baizik eta okerrera egin du. Gero eta lokal huts gehiago dago. Arcco merkataritza-gunean ere ez dute negozioek aurrera ateratzea lortzen.

Auzoko merkatariek berek aldarrikatzen dute

En el año 2015, Paisaje Trasversal, por encargo de la oficina de Fomento, realizó una investigación para profundizar en las causas de cierre de los establecimiento comerciales del barrio de Amara y poder realizar un plan de estímulo empresarial para revitalizar la zona.

De aquel estudio se hizo un análisis del barrio: Amara Berri cuenta con más de 30.000 habitantes siendo el más poblado de la ciudad. Surgió en la década de 1950 como un ensanche de la ciudad, pero en las últimas décadas se han ido desarrollando distintos núcleos urbanos que se han sumado a la zona de Sancho el Sabio y al entramado situado entre la avenida de Madrid y Carlos I, como la zona de Mutualidades, Amara Osinaga o, más recientemente, Riberas de Loiola. La fisonomía del barrio, el hecho de que esté atravesado por carreteras y trenes y que no haya una plaza central que aglutine a los vecinos, ha hecho que el barrio no haya experimentado un despegue comercial acorde con la población que acoge.

Amara Berri tiene un total de 348 establecimientos comerciales. Aunque es el primero en población, es el tercero de la ciudad en implantación comercial. Los amaratarras frecuentan sus comercios de alimentación del barrio, pero van al centro para compras relacionadas con la ropa y el calzado. Los vecinos constatan que la glorieta de Pío XII separa el barrio, al igual que el vial de Carlos I hasta hace unos años.

Seis años después, no sólo no ha revertido la situación, sino que ha empeorado. Cada vez son mas los locales vacíos. Ni siquiera en el Centro Comercial de Arcco logran sobrevivir los negocios.

Los propios comerciantes del barrio reivindican

erakundeek tokiko merkataritzaren alde egin dezatela, auzo batek, merkataritza aktiboa badu, bizitza handiagoa duelako. Merkataritzak jendearen mailan egon behar du, eta jendeak kalitateko eta hurbileko zerbitzua nahi du Amaran. Jende asko bizi da Amaran, eta Amaran eros dezaten lortu behar da. Horrez gainera, erretiroagatik edo beste arrazoi batzuengatik ixten diren dendek jarraipena izan dezaten ere eskatzen dute.

Badakigu arazo hori ez dela Amararena bakarrik, eta beste auzo batzuetara estrapola daitekeela. Badakigu, gainera, gobernu-taldea lanean ari dela hiri osoan saltoki txikiak suspertzeko, eta Ekialdeko Barrutian ekimen bereziak egiten ari dela. Baina Amararen ezaugarri bereziak direla eta, jarduera zehatz eta bereziak behar dira, eta jarduera horiek dedikazio bereziz landu behar lirateke.

Hori dela eta, hauxe da gure

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio gobernu-taldeari Amara auzoko enpresak suspertzeko eta merkataritza berraktibatzeko plan oso bat susta dezala.

Donostia, 2021eko azaroaren 18a

Mikel Lezama Zubeldia
PPko udal taldeko zinegotzia".

que las instituciones apuesten por el comercio local, porque un barrio tiene más vida con un comercio activo. El comercio tiene que estar al nivel de la gente que busca en Amara servicio de calidad y proximidad. Hay mucha gente que vive en Amara y hay que lograr que compren en Amara. También reclaman el apoyo para que las tiendas que cierran por jubilación u otros motivos tengan continuidad.

Somos conscientes que este no es un problema exclusivo de Amara y que se podría extrapolar a otros barrios. Sabemos además que el Equipo de Gobierno está trabajando por la reactivación del pequeño comercio en el conjunto de la ciudad, y con iniciativas particulares en el Distrito Este. Pero las características particulares de Amara requieren actuaciones concretas y especiales que deberían tratarse con una dedicación especial.

Por estos motivos presentamos la siguiente

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Equipo de Gobierno a promover un plan completo de estímulo empresarial y reactivación del comercio para el barrio de Amara.

En San Sebastián, a 18 de noviembre de 2021

Mikel Lezama Zubeldia
Concejal del Grupo Municipal Popular”.

Eztabaida hasita, Mikel Lezama Zubeldia jaunak, Marta Huarte Paño andreak eta Marisol Garmendia Beloqui andreak parte hartu dute puntu honetan. Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as D. Mikel Lezama Zubeldia, D.ª Marta Huarte Paño y D.ª Marisol Garmendia Beloqui, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

---------------

| | |
|---|---|
| **GERTAKIZUNAK:** | **INCIDENCIAS:** |
| **OSOKO BILKUREN ARETOAN:** | **EN EL SALÓN DE PLENOS:** |
| **2. KONTROL MOZIOAREN EZTABAIDAN, BILERARA BERTARATUTAKOEN ISILTASUNIK EZAK HORREN GARAPEN NORMALA OZTOPATZEN DUELA IRITZITA, ALKATE-UDALBURUAK UDALEKO TALDE POLITIKOETAKO BOZERAMAILEEKIN BILTZEA ERABAKI DU.** | **DURANTE EL DEBATE DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 2, CONSIDERANDO QUE LA FALTA DE SILENCIO POR PARTE DEL PÚBLICO ASISTENTE A LA SESIÓN IMPIDE EL NORMAL DESARROLLO DE LA MISMA, EL ALCALDE-PRESIDENTE DECIDE REUNIRSE CON LOS PORTAVOCES DE LOS GRUPOS POLÍTICOS MUNICIPALES.** |
| **OSOKO BILKURAREKIN JARRAITZEA ERABAKI DA, BAINA ALKATE-UDALBURUAK BEHIN BAINO GEHIAGOTAN ESKATU ARREN JARRERA HORRI UZTEKO JENDEAK BEREAN SEGITU DUELA IKUSIRIK, 11:25EAN OSOKO BILKURA ORDUBETEZ ETETEA ERABAKI DU ALKATEAK.** | **SE DECIDE CONTINUAR CON LA SESIÓN PLENARIA, PERO A LA VISTA DE QUE TRAS VARIOS REQUERIMIENTOS POR PARTE DEL ALCALDE-PRESIDENTE, EL PÚBLICO ASISTENTE NO DEPONE SU ACTITUD, A LAS 11:25 HORAS ÉSTE DECIDE SUSPENDER POR UNA HORA LA SESIÓN PLENARIA.** |
| **12:30EAN BILERARI EKIN ZAIO BERRIRO.** | **A LAS 12:30 HORAS SE REANUDA LA SESIÓN** |
| **NIK, IDAZKARI NAIZEN ALDETIK, BILERAN ESANDAKO GUZTIAREN FEDE EMATEN DUT:** | **DE TODO LO CUAL, YO, EL SECRETARIO, DOY FE:** |
| **LEHENDAKARIA: / EL PRESIDENTE:** | **IDAZKARIA: / EL SECRETARIO:** |

---------------

**12:30ETAN BILERARI EKIN ZAIO BERRIRO.**

**A LAS 12:30 HORAS SE REANUDA LA SESIÓN**

Eztabaidari berriro ekin zaio eta Marisol Garmendia Beloqui andreak, Jon Markel Ormazabal Gaztañaga jaunak eta Mikel Lezama Zubeldia jaunak parte hartu dute puntu honetan. Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Se retoma la deliberación e intervienen los/la señores/a D.ª Marisol Garmendia Beloqui, D. Jon Markel Ormazabal Gaztañaga y D. Mikel Lezama Zubeldia, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.2.3. Kontrol mozioa, PP Taldeak aurkeztua, Egia auzoko segurtasun-gabezia haunditzeari buruzkoa.**

“Talde Popularraren bozeramaile Borja Corominas Fisasek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, Egia auzoan segurtasunik eza gero eta handiagoa dela-eta Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) aurkeztutako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Joan den hilaren amaieran, Mundaitz kalean istilu bat gertatu zela jakin genuen, prentsaren bitartez. Bi gizon arma zuriz borrokatu ziren, eta haietako bat larri zauritu zen. Gertaera

**II.2.3. Moción de control, presentada por el Grupo PP, sobre la creciente inseguridad en el barrio de Egia.**

“Borja Corominas Fisas, Portavoz del Grupo Popular,al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, como consecuencia de la interpelación presentada en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbano, sobre la creciente inseguridad en el barrio de Egia.

JUSTIFICACIÓN

A finales del mes pasado supimos, por la prensa, que se había producido un altercado en la calle Mundaiz. Una pelea con arma blanca entre dos hombres, en el que uno de

tamalgarri hori hedabideetaraino iritsi zen, baina, zoritxarrez, ez zen Mandasko Dukearen pasealekuan, Tabakaleran, Blas de Otero plazan, Cristina Enea parkean, Egiako pasabidean, autobus-geltokian eta inguru horietan gertatutako ez aurreneko ez azkeneko istilua.

ellos resultó herido de gravedad. Ese lamentable suceso llegó hasta los medios de comunicación, pero no era ni el primero ni el último que, desgraciadamente, se están viviendo en la zona de Duque de Mandas, Tabakalera, Plaza Blas de Otero, Parque de Cristina Enea, pasadizo de Egia, estación de autobuses y alrededores…..

Bizilagunak beldur dira, nazkatuta daude, eta gero eta amorru handiagoa dute. Egunero daude ebasketak, trapitxeoak, larderia, lapurretak eta abar. Segurtasunik eza gero eta handiagoa da Egian, eta inguruko bizilagunek, ostalariek eta merkatariek erantzun bat eskatzen dute; berriz ere lasai bizi nahi dute. Etxera itzuli nahi dute, atzera begiratu beharrik izan gabe ea inor segika ote duten edo baten bat behar baino gehiago gerturatu ote zaien, telefonoa, diru-zorroa edo beste zerbait lapurtzeko asmoz. Beldurrik gabe atera nahi dute kalera, eta beren bizimodua egin. Seme-alabak etxera bakarrik itzultzea nahi dute, haien bila joan beharrik izan gabe, zerbait gertatuko zaien beldur. Merkatariek eta ostalariek ez dute nahi inork ezer lapurtzea eta larderiaz tratatzea.

Los vecinos tienen miedo, están hartos y la crispación aumenta cada día. Un día sí y otro también hay hurtos, trapicheo, intimidaciones, robos, etc... La inseguridad crece en Egia y los vecinos, hosteleros y comerciantes de la zona demandan respuestas, quieren volver a vivir tranquilos. Quieren volver a casa sin tener que mirar si alguien les sigue o si se acerca alguien más de la cuenta con intención de robarles el teléfono, la cartera o cualquier objeto personal. Quieren poder salir a la calle sin temor y hacer su vida. Quieren que sus hijos e hijas vuelvan a casa sin tener que ir a buscarles por miedo a que les pase algo. Los comerciantes y hosteleros quieren trabajar sin que les roben y les intimiden.

Segurtasunik ezaren pertzepzioa handitzen ari da Donostian, eta hala kontatzen digute donostiar askok. Une honetan, Egia da “puntu beroa”, hor izaten baitira indarkeriazko gertakari gehienak, baina arazoa tokiz aldatuz doa gure hirian.

La percepción de inseguridad está creciendo en San Sebastián y así nos lo cuentan muchos donostiarras. En estos momento es Egia el “punto caliente” donde se concentra un mayor número de incidentes violentos, pero esta problemática va cambiando de zonas en nuestra ciudad.

Batzordean Segurtasuneko zinegotzi ordezkari Martin Ibabek adierazi zuenez, aurtengo apirilaren 1az geroztik udal-patruila iraunkor bat dago, Udaltzaingoaren eta Ertzaintzaren baterako jarduketa-planaren ondorioz. Baina, bizilagunen arabera, haren presentzia orain, azken asteetan, ari da areagotzen, ostalariek, merkatariek eta bizilagunek komunikabideetan salaketa jarri ondoren.

Según aseguró el concejal delegado de seguridad en la comisión, Martín Ibabe, hay una patrulla municipal permanente desde el 1 de abril de este año fruto del plan de actuación conjunta de la Policía Municipal y la Ertzaintza. Pero según los vecinos, es ahora, y en las últimas semanas, tras la denuncia de hosteleros, comerciantes y vecinos en los medios de comunicación, cuando está

presencia se ha incrementado.

Ziur gaude, Ibabe jaunak esan zuen bezala, Ertzaintzarentzat eta Udaltzaingoarentzat helburu horrek erabateko lehentasuna duela, baina uste dugu premiazkoa dela neurri gehiago hartzea. Zinegotzi ordezkariak adierazi zuen hirian herritarren segurtasunaz arduratzen direla haiek, baina beste kontu batzuk beste polizia-kidego batzuen ardura direla. Horregatik, uste dugu ona litzatekeela, Donostian gero eta handiagoa den segurtasun-gabeziaren aurka borrokatzeko, Koordinazio Mahaian Polizia Nazionala eta Guardia Zibila ere sartzea.

Estamos convencidos de que, como dijo el Señor Ibabe, "es un objetivo de máxima prioridad para la Ertzaintza y Policía Municipal" pero creemos que urge adoptar más medidas. El concejal delegado aseguró que "somos las policías responsables de la seguridad ciudadana en la ciudad, no así de otras cuestiones que son responsabilidad de otros cuerpos policiales". Esta es la razón por la que consideramos que sería bueno, para luchar contra la creciente inseguridad que se está viviendo en San Sebastián, incluir en la Mesa de Coordinación a la Policía Nacional y a la Guardia Civil.

Segurtasuna herritarren oinarrizko eskubidea da, eta askatasunean bizi nahi duen edozein gizarteren zutabea.

La seguridad es un derecho fundamental de los ciudadanos, y el pilar de cualquier sociedad que quiera vivir en libertad.

Hori dela eta, hauxe da gure

Por estos motivos presentamos la siguiente

KONTROL MOZIOA

MOCIÓN DE CONTROL

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio gobernu-taldeari jar ditzala zaintza-kamerak Blas de Otero plazan, aldameneko eraikinetan dauden arkupeetan eta Atotxako dorrearen etxabeetan, Egiako eremu horretan delitu-egintzak prebenitzeko eta segurtasuna lehengoratzeko.

1. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Equipo de Gobierno a instalar cámaras de vigilancia en la Plaza Blas de Otero, en los soportales existentes en los edificios colindantes y en los bajos de la torre de Atotxa con el fin de prevenir actos delictivos y restablecer la seguridad de esta zona de Egia.

2. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio gobernu-taldeari argiztapen handiagoa jar dezala Blas de Otero plazan eta inguruetan, gune ilunak eta puntu beltzak saihesteko, bizilagunak eta trenbide gaineko oinezkoen pasabide berria erabiltzen duten pertsonak seguruago senti daitezen eta, horrela, delitu-egintzarik gerta ez dadin.

2. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Equipo de Gobierno a instalar una mayor iluminación en la zona de la Plaza Blas de Otero e inmediaciones para evitar zonas sombrías y puntos negros de manera que los vecinos y las personas que usan el nuevo paso peatonal sobre las vías del tren se sientan más seguros y así prevenir cualquier acto delictivo.

3. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio gobernu-taldeari eguneko 24 orduetan

3. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Equipo de Gobierno a destinar una

patruila iraunkor bat jartzeko Mandasko Dukearen pasealekuaren, Tabakaleraren eta Blas de Otero plazaren inguruan, lapurretak, larderia, liskarrak, borrokak eta abar gerta ez daitezen, eta hala Egiako bizilagunak nola eremu jendetsu horretatik pasatzen diren herritarrak berriz ere lasai ibil daitezen .

patrulla permanente, las 24 horas del día, en la zona de Duque de Mandas, Tabakalera y Blas Blas de Otero para evitar que se produzcan robos, intimidaciones, altercados, peleas… y devolver la tranquilidad a los vecinos de Egia y a todos los ciudadanos que transitan por esta zona tan concurrida.

4. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio gobernu-taldeari Polizia Nazionala sartzeko Udaltzaingoa eta Ertzaintza lanean aritzen diren Koordinazio Mahaian, Estatuko segurtasun-kidego guztiek elkarrekin lan egin dezaten Donostian segurtasuna berrezartzeko.

4. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Equipo de Gobierno a incluir en la Mesa de Coordinación en la que ya trabajan Policía Municipal y Ertzaintza, a la Policía Nacional, con el objetivo de que todos los Cuerpos de Seguridad del Estado trabajen conjuntamente para restaurar la seguridad en San Sebastián.

5. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio gobernu-taldeari Guardia Zibila sartzeko Udaltzaingoa eta Ertzaintza lanean aritzen diren Koordinazio Mahaian, Estatuko segurtasun-kidego guztiek elkarrekin lan egin dezaten Donostian segurtasuna berrezartzeko.

5. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Equipo de Gobierno a incluir en la Mesa de Coordinación en la que ya trabajan Policía Municipal y Ertzaintza, a la Guardia Civil, con el objetivo de que todos los Cuerpos de Seguridad del Estado trabajen conjuntamente para restaurar la seguridad en San Sebastián.

Donostia, 2021eko azaroaren 18a

Borja Corominas Fisas
PPko udal taldeko zinegotzia".

En San Sebastián, a 18 de noviembre de 2021

Borja Corominas Fisas
Concejal del Grupo Municipal Popular”.

Eztabaida hasita, Borja Corominas Fisas jaunak, Aitzole Araneta Zinkunegi andreak, Marisol Garmendia Beloqui andreak, Olaia Duarte Lopez andreak eta Martin Ibabe Eceiza jaunak parte hartu dute puntu honetan. Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D. Borja Corominas Fisas, D.ª Aitzole Araneta Zinkunegi, D.ª Marisol Garmendia Beloqui, D.ª Olaia Duarte Lopez y D. Martin Ibabe Eceiza, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**

**ALDEKO BOTOAK: 3 – PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 23 – (10) EAJ/PNV, (5) EH BILDU, (5) PSE-EE, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**ABSTENTZIOAK: 1 EH BILDU, PLENO ARETOAN EZ EGOTEAGATIK.**

**VOTOS A FAVOR: 3 – PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 23 – (10) EAJ/PNV, (5) EH BILDU, (5) PSE-EE, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**ABSTENCIONES: 1 EH BILDU, POR HABERSE AUSENTADO DE LA SALA.**

---------------

**II.2.4. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak aurkeztua, gune estalien beharrari buruzkoa.**

“Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2021eko azaroaren 15ean Gune Publikoen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2020ko azaroan, Egia Bizirik auzo elkarteko kideek txosten bat helarazi ziguten Udalbatza osatzen dugun taldeoi auzoko behar eta arazo batzuk zerrendatuz. Horietako asko mantenimenduarekin eta gune estalien beharrarekin erlazionatutako gaiak dira.

Plaza Haundiko gune estaliari dagokionez, partaidetza prozesua bukatu ondoren proiektua definitu zen eta lehenengo eraikuntza fase baterako 1.300.000€-ko aurrekontua aurreikusi zen. Aurreko agintaldiko Udal Gobernuak iragarri zuen obrak 2018. urteko udazkenean hasiko zirela eta zortzi hilabeteko epea izango zutela. Hiru urte joan diren honetan, bizilagunek zain jarraitu dute obrak noiz hasiko. Delegatuak batzordean emandako informazioaren arabera, hainbat arazo eta baimen falta zirela medio,

**II.2.4. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre la necesidad de espacios cubiertos.**

“Olaia Duarte López, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción, para su tratamiento en el Pleno, consecuencia de la interpelación sustanciada ante la Comisión de Espacio Público el 15 de noviembre de 2021.

JUSTIFICACIÓN

En noviembre de 2020, miembros de la Asociación de Vecinos Egia Bizirik nos trasladaron un informe a los grupos municipales en el que relacionaban algunas necesidades y problemas del barrio, muchos de los cuales tienen que ver el mantenimiento y la necesidad de espacios cubiertos.

